

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2023ko MARTXOAREN 30ean, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2023ko martxoaren 30ean, eguerdiko 13.30 orduetan, Maite Arana Perez Alkatearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira bilkura honetan.

ZINEGOTZIAK: Vicente Garcia Momblona
Jose Antonio Rodriguez Rodriguez
Mireia Ruiz Delgado
Aitor Beistegui Fiallegas


Bere ezin etorria adierazten dute: Maialen Alonso Labandibar eta Jesus Maria Tejada Cantero.

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten diren Udalbatzarretako aktak onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de las siguientes actas Plenarias:**
 - **2023ko otsailaren 23an egindako ohiko bilkura/ Sesión ordinaria de fecha 23 de febrero de 2023.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.**
- 4. 2022ko aurrekontuaren likidazioaren berri ematea, hala bada./Dación de cuenta de la liquidación correspondiente al ejercicio 2022.**
- 5. 20223urterako Udal zergen hobari eskaeren onespena, hala bada. /Aprobación de las bonificaciones en los impuestos municipales correspondientes al ejercicio 2023.**
- 6. 2023 urteko trakzio mekanikoko ibilgailuen zergaren erroldaren onespena. /Aprobación del padrón del impuesto sobre vehículos de tracción mecánica para el año 2023.**
- 7. 2023 urterako Erroitz Baltzu Mugatuak, Aiurri hamaboskarirako, eginiko diru-laguntzaren eskaeraren onespena./ Aprobación de la solicitud de subvención de la Sociedad Limitada Erroitz para el año 2023, para la revista quincenal Aiurri.**




LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

8. Tolosaldea Garatzen-i 2023 urteko ekarpena burutzeko onespena ematea./Aprobar el pago de la aportación correspondiente al ejercicio 2023 a Tolosaldea Garatzen.
9. 2023 urtean “Tolosaldea Sahararekin elkartean, 365 egun” proiekturako, Tolosaldea Sahararekin elkartek eginiko diru-laguntza eskaeraren onespena./ Aprobación de la solicitud de subvención realizada por Tolosaldea Sahararekin Elkartea para la realización del programa “Tolosaldea Sahararekin elkartean, 365 egun” correspondiente al ejercicio 2023.
10. Guraso Elkartek 2022 urteari dagokion diru-laguntzaren kitapena onestea, hala bada./ Aprobación de la liquidación de la ayuda económica concedida a Larraulgo Guraso elkartea, correspondiente a al ejercicio 2022.
11. Guraso Elkartek eginiko diru-laguntzaren azterketa./Estudio de la solicitud de ayuda económica de Guraso Elkartea.
12. Aiztondo Neskide kirol Taldeak eginiko diru-laguntzaren onespena/Aprobación de la subvención realizada por Aiztondo Neskide kirol taldea.
13. Bake epailea eta bere ordezkoa hautatzeko deialdiaren onspena, hala bada./ Aprobación, de la convocatoria para la elección de Juez de Paz y sustituto.
14. Ogasun eta finantza departamentua eta Gipuzkoako lurralde historikoko udalen artean, informazioa elkartrukatzeko esparru hitzarmenaren onspena/Aprobación del convenio marco para el intercambio de información entre el departamento de hacienda y finanzas y los Ayuntamientos del territorio histórico de Gipuzkoa.
15. Bizikleta elektrikoak erosi edo elektrifikatzeko kit-ak erosteko diru-laguntza eskaeren onspena/ Aprobación de la solicitud de subvención para adquisición de kits para electrificación o adquisición de bicicletas eléctricas.
16. Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 2023 ko 1. Eta 2. Hiruhilabeteko ekarpenak burutzea, hala bada./Aportación económica a Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatea correspondiente al 1. y 2. Trimestre del ejercicio 2023.
17. Beste batzuk/Otros.
18. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.

.../...

LEHENENGO PUNTUA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ONDOREN ADIERAZTEN DEN UDALBATZARRETAKO AKTA ONESTU, HALA BADAGOKIO

- 2022 urteko otsailaren 23an egindako Udalbatzaren ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren udalbatzak gehiengoz onesten du.


BIGARRENGO PUNTUA **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren, Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 9/2023tik 17/2023ra Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

HIRUGARRENGO PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

| | |
|------------------------------------|----------|
| GAZTEZULO | 30,00 |
| ELECTRICIDAD ZIZURKIL | 840,44 |
| GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA | 4.812,50 |
| GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA | 4.399,52 |
| GIZA HEZIKETARAKO KALEXKA ELKARTEA | 1.000,00 |
| IZFE | 37,82 |
| MONTTE | 157,13 |
| MAQUELSA | 127,05 |
| MAITE ORTEGA | 825,00 |
| TELEFONICA | 37,99 |
| BABESA SUZAI | 303,47 |
| BERRI LANTEGIA | 108,00 |
| BERRI LANTEGIA | 20,97 |
| REPSOL | 22,58 |
| REPSOL | 72,71 |
| SETALDE | 3.932,50 |
| REPSOL | 151,42 |
| REPSOL | 155,50 |
| REPSOL | 258,93 |
| TECNIKRONOS | 711,48 |
| SANIPLAST | 43,40 |
| MELLIFERA | 2.149,77 |
| TOLOMENDI | 1.011,90 |
| TELEFONICA | 215,52 |
| TELEFONICA | 102,25 |
| TELEFONICA | 161,63 |
| EBA ERKIZIA | 1.536,16 |
| BASAJAUN LIBURUDENDA | 220,00 |



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

| | |
|------------------|----------|
| ZU ETA BIOK | 1.360,73 |
| AMARA GRAPHIC | 390,00 |
| SECURITAS DIRECT | 53,02 |
| SECURITAS DIRECT | 52,39 |
| NORTEGAS | 814,75 |
| BERRI LANTEGIA | 47,99 |
| GUREAK MARKETING | 8,00 |

Udalbatza honek, **aho batez** hurrengo,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **26.172,52** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

LAUGARREN PUNTUA

2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA, HALA BADA

Ondoren batzarkideei 2022 ekitaldiko Udal Aurrekontu Orokorraren likidazioaren berri ematen da, 2023/10 zenbakia duen eta 2023ko martxoaren 7an Alkate Ebazpenez onartua izan zena:

“2023/10 DEKRETUA


Udal honen 2022ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehena.- Udal honen 2022ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

DIRUZAINZTA GERAKINA

| | | |
|---|-----------|------------|
| 1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2022-12-31n: | | 219.353,09 |
| 2.- Kobratu gabeko saldoak, 2022-12-31n: | | 27.145,74 |
| Aurrekontuko zordunak : | 24.372,78 | |
| Aurrekontuz kanpoko zordunak: | 2.772,96 | |
| - Aplikatu gabeko kobrantzak: | 0,00 | |
| 3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2022-12-31n: | | 45.685,58 |
| Gastuen aurrekontuko hartzekodunak: | 25.044,32 | |
| Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak: | 20.641,26 | |
| - Aplikatu gabeko ordainketak: | 0,00 | |
| 4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2-3): | | 200.813,25 |



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

| | |
|--|------------|
| 5.- Saldo kobragaitzak: | 0,00 |
| 6.- Gehiegizko finantzaketa lotua: | 0,00 |
| 7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6): | 200.813,25 |

AURREKONTUKO EMAITZA

| | |
|--|-----------|
| 1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza: | -8.579,43 |
| 2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza: | -1.875,00 |
| 3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik: | 95.683,14 |
| 4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik: | 0,00 |
| 5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4): | 85.228,71 |

KREDITU GERAKINAK

| | |
|--|------------|
| 1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak: | 94.953,35 |
| 2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak: | 37.095,19 |
| 3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2): | 132.048,54 |

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran."

Batzarkideak jakinaren gainean gelditzen dira.


BOSTGARREN PUNTUA

2023 URTERAKO UDAL ZERGEN HOBARI ESKAEREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik 2023 urterako Udal zerga-tasen hobari eskaerak egiteko 2022ko otsailaren 1etik 28 arte epea ireki zela, 16 eskaera egon direlarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengo

ERABAKITZEN DU:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENA: Ondoren zerrendatzen diren 2023 urterako udal zerga-tasen hobari eskaerak onestea:

| TITULARRA | ZERGA | ARRAZOIA | ZENBA TEKOA |
|-----------|-------|------------------|----------------|
| O.O.R. | OHGZ | FAMILI UGARIA | %50 |
| M.S.G | OHGZ | FAMILI UGARIA | %50 |
| I.A.O | OHGZ | FAMILI UGARIA | %50 |
| L.M.T.Z. | OHGZ | FAMILI UGARIA | %50 |
| M.M.T. | OHGZ | FAMILI UGARIA | %50 |
| A.A.J | OHGZ | EGUZKI APROBE. | %25 |
| I.O.D. | OHGZ | EGUZKI APROBE. | %25 |
| L.M.T. | OHGZ | EGUZKI APROBE. | %25 |
| A.I.R. | OHGZ | EGUZKI APROBE. | %25 |
| K.V.D.W. | OHGZ | EGUZKI APROBE. | %25 |
| I.U.A. | OHGZ | EGUZKI APROBE. | %25 |
| A.S.V. | TMIGZ | IBILGAILU HISTO. | %50 |
| K.J.S. | TMIGZ | IBILGAILU HISTO. | %50 |
| J.J.A.U. | TMIGZ | IBILGAILU HISTO. | %50 |
| J.U.E. | TMIGZ | IBILGAILU HISTO. | %50 |

BIGARRENA: Ondoren zerrendatzen den 2023 urterako udal zerga-tasen hobari eskaera ukatzea, eskaera egiteko garaian ez zituelako eskatutako baldintzak betetzen:

| | | | |
|--------|-------|------------------|-----|
| K.J.S. | TMIGZ | IBILGAILU HISTO. | %50 |
|--------|-------|------------------|-----|

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunei ematea.

SEIGARREN PUNTUA


2023 URTERAKO TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN ZERGAREN ERROLDAREN ONESPENA

Ikusirik 2023 ekitaldirako Trakzio Mekanikoko ibilgailuen gaineko Udal Zergaren Erroldaren berri ematen dela, kuota garbia 21.666,75 eurotakoa delarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- 2023 ekitaldirako Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari dagokion Udal errolda onartzea eta 11/1989 Legeak, Herri Ogasunei buruzkoak 14.1 artikuluan xedaturikoari jarraituz hilabeteko epean espedientea jendaurrean ipini, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ofizialean argitaratu ondoren, edonork aztertu eta egoki dituen iradokizunak burutu ditzan.

BIGARRENA.- Aipaturiko zerga ordaintzeko borondatezko epea, onarturiko 2023 ekitaldirako Zerga Egutegiari jarraituz, 2023ko apirilaren 3etik ekainaren 5era bitartekoa izatea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

2023 URTERAKO ERROITZ BALTZU MUGATUAK, AIURRI HAMABOSKARIRAKO, EGIKO DIRU-LAGUNTZAREN ESKAERAREN ONESPENA

Ikusirik 2023 ekitaldirako Erroitz Baltzu mugatuak, aurkeztu duela “AIURRI, Beterri-Aiztondoko hamaboskaria”-k egitasmoaren aurrekontua, bertan, Larraulgo Udalari memorian azaldutako egitasmoak aurrera eramateko diru-laguntza eskaera egiten dio.

Ikusirik Larraulgo Udalak, 2023 urteko aurrekontuetan, Erroitz Baltzu mugatuari Aiurri Beterri-Aiztondoko hamaboskaria argitaratzeko 750 eurotako partida bat aurreikusi duela.

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- “AIURRI, Beterri-Aiztondoko hamaboskaria”-ari 2023ekitaldirako 750,00 eurotako diru-laguntza onartzea eta ordainketa burutu dadila agintzea. Urte bukaeran, Erroitz Baltzu mugatuak, dagokion kitapena aurkeztu beharko duelarik.


BIGARRENA.- 750,00 eurotako gastua onestea, 2023 urterako udal aurrekontuetako 422.334.00.01 partidaren kargura.

HIRUGARRENA.- Erroitz baltzu mugatuari erabaki honen berri ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

TOLOSALDEA GARATZEN-i 2023 URTEKO EKARPENA BURUTZEKO ONESPENA EMATEA

Ikusirik Tolosaldea Garatzenek igorritako idatzia, non 2022ko abenduak 12ko Batzar Orokorrean onartutako Gestio Planean zehazten denaren arabera, 2023 urterako Tolosaldea Garatzen-i egin beharreko ekarpena burutu dezan eskaera egiten du, bere zenbatekoa 5.599,00 euro direlarik.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Aipaturiko diru kopuruaren ekarpena bi zatitan burutu dadin proposatzen dela, ekarpen bakoitzean % 50a egingo delarik: Lehena, martxoaren 30ean eta bigarrena, irailaren 30ean.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldea Garatzen-i, 2023 urteko ekarpena onestea, guztia 5.599,00 euro direlarik. Lehen ekarpena burutzea onesten da, hau da, 2.799,50 eurotako diru kopurua.

BIGARRENA: 5.599,00 eurotako gastua onestea, ordainketak 2023 urteko udal aurrekontuetako 422.430.00.01 kontu sailaren kargura egingo direlarik.

BEDERATZIGARREN PUNTUA

2023 URTEAN "TOLOSALDEA SAHARAREKIN ELKARTEAN, 365 EGUN" PROIEKTURAKO, TOLOSALDEA SAHARAREKIN ELKARTEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN ONESPENA

Ikusirik, aurtien lehendabiziko aldiz, Tolosaldea Sahararekin elkarteak kudeatuko duela Oporrak Bakean behin-behineko udako harrera programa. Horretarako martxotik aurrera teknikari bat kontratatuko du, programarako beharrezkoa den lanketa guztia koordinatuz eta itzultzaile bat ere.

Programa honen babesean Saharako hainbat neska-mutil etorriko dira Tolosaldeako familietara uda-aldia igarotzea, bere osasuna eta garapena hobetzeko helburu nagusiarekin. Tolosaldean uda igaroko duen haur bakoitzeko kostua 1.011,00 eurotako izango da.

Ikusirik, Larraulgo Udalak ere parte hartu nahi duela programa horretan.


Ikusirik, programa hori gauzatzeko hitzarmen bat prestatu dela Tolosaldea Sahararekin Elkarteak eta Larraulgo Udalaren artean sinatzeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Udalak, Oporrak Bakean programan parte hartzeko onespena ematea.

BIGARRENA: Larraulgo Udalak, Oporrak Bakean programarako, 417.231.00.01 kontu sailean, 125,00 euro aurreikusten dituela, programak sortarazten dituen gastuekin laguntzeko. Aipaturiko gastua egiteko onespena ematea eta ordainketa burutu dadin agintzea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

HIRUGARRENA: Larraulgo Udalak eta Tolosaldea Sahararekin Elkarteak Oporrak bakean programa aurrera eramateko prestatutako hitzarmena onestea. Maite Arana Perez, Larraulgo Alkatesa ahalmentzen delarik aipaturiko hitzarmena sinatzeko.

HAMARGARREN PUNTUA

GURASO ELKARTEAK 2022 URTEARI DAGOKION DIRU-LAGUNTZAREN KITAPENA ONESTEA, HALA BADA

Ikusirik "Larraulgo guraso elkarteak", aurkeztu duela 2022 urtean jasotako diru-laguntzen kitapena.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: "Larraulgo guraso elkarteak", 2022 urteko Larraulgo udaletik jasotako diru-laguntza zuritzeko, aurkezturiko kitapena onesten da.

HAMAIKAGARREN PUNTUA

GURASO ELKARTEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZAREN AZTERKETA

Ikusirik Larraulgo guraso elkarteak eginiko eskaera, non azaltzen duten urtean zehar hainbat ekintza burutzen dituztela eta hauen kostua finantzatzeko Larraulgo Udalari diru-laguntza eskaera egiten diete.

Ikusirik 2023 urteko udal aurrekontuetako 422.323.00.01 partidari Larraulgo Guraso elkarteari 2.500,00euroko diru-kopuruko laguntza aurreikusi dela.


Ikusirik, aipaturiko diru-laguntza gauzatzeko prestatu dela hitzarmen zirriborro bat.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo guraso elkarteari 2.500,00 eurotako diru-laguntza ematea, urtean zehar antolatzen dituen ekintzetarako.

BIGARRENA: 2.500,00 eurotako gastua onartzea, eta bere ordainketa egitea agintzea 2023 urteko udal aurrekontuetako 422.323.00.01 partidaren kontura.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

HIRUGARRENA: Larraulgo udalaren eta Larraulgo guraso elkartearen arteko hitzarmena onestea eta Maite Arana Perez alkatesa ahalmentzea aipaturiko hitzarmena sina dezan.

LAUGARRENA: Larraulgo Guraso Elkarteari jakitera ematea, egin duen gastuen memoria bat eta dagozkien fakturak aurkeztu beharko dituela, Udalak emandako diru-laguntza zurituaz.

BOSTGARRENA.- Akordio honen berri interesdunari ematea.

HAMABIGARREN PUNTUA

AIZTONDO NESKIDE KIROL TALDEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZAREN ONESPENA

Ikusirik Aiztondo Neskide Kirol Kluba-k eginiko eskaera, non dioen, bailarako emakumeen kirola bultzatzeko sortu berria den klub honek, futboleko 9 talde mantendu eta boleibolen infantil, kadete eta senior taldeak sortu nahi dituztela, horretarako ezinbestekoa da bailarako udalerrien diru-laguntza. Horregatik Aiztondo bailarako udaletxei diru-laguntza egiten die.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Neskide Kirol Kluba-ri 414,00 eurotako ekarpena burutzea 2023ko Udal aurrekontuetako 422.341.00.04 Kontu sailaren kargura.

BIGARRENA.- 414,00 eurotako gastua onestea.


HIRUGARRENA: Aiztondo Neskide Kirol Kluba-ri jakitera ematea, egin duen gastuen memori bat eta dagozkien fakturak aurkeztu beharko dituela, Udalak emandako diru-laguntza zurituaz.

LAUGARRENA.- Akordio honen berri interesdunari ematea.

HAMAHIRUGARREN PUNTUA

BAKE EPAILEA ETA BERE ORDEZKOA HAUTATZEKO DEIALDIAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik 2023 urteko otsailaren 16an Euskal Autonomi Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu Idazkariak igorritako idatzia, non adierazten duen Larraulgo Bake Epailea eta bere ordezkoa izendatuak izan ziren lau urteetako epea amaitzear dagoela eta Udalbatzarrak beste lau urtetarako izendatuak izan daitezen Bake Epaile berria eta bere ordezkoa proposatu behar dituela.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik 2023 urteko martxoaren 27an Udaleko Behin Behineko Idazkari Kontu-hartzaileak idatzi duen txostenean dioena, zeinetan adierazten duen zein prozedura jarraitu behar den Bake Epailea eta bere ordezkoa hautatzeko eta zeintzuk diren hautagaiek bete beharreko baldintzak.

Gaia azterturik Udalbatzarrak aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DU

LEHENA.- Larraulgo Udalerrian lau urteetarako izendatuko diren Bake Epailea eta bere ordezkoa hautatzeko deialdia egitea. Modu honetan hautagaiei legeak ezarritako baldintzaz gain ondorengoa baldintza galdatuko zaie: hautagaiak euskaraz jakitea.

BIGARRENA.- Deialdiaren iragarkia argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaleko Iragarki Taulan, web orrian eta Tolosako Lehen Instantzia eta Instrukzio Epaitegian. Aldi berean Larraulgo herrian zehar deialdiaren bandoa zabalduko da. Modu honetan izen emateko epea zabalduko da iragarkia aipatu den tokietan argitaratu eta gehienez Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost lanegunetako epean.

HAMALAU GARREN PUNTUA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA ETA GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO UDALEN ARTEAN, INFORMAZIOA ELKARTRUKATZEKO ESPARRU HITZARMENAREN ONESPENA

Ikusita Ogasun eta finantza departamentua eta Gipuzkoako historikoko udalean artean, informazioa elkar trukatzeko esparru duen hitzarmena.


Aipaturiko hitzarmen honen helburua, zehaztea da, zer-nolako muga eta baldintza orokorrek arautuko duten Ogasun eta Finantza Departamentuaren eta hori izenpetzen duten Gipuzkoako udalen arteko informazio truke aldebikoa eta beren informazio sistemetak elkarri emango dieten sarbidea.

Ikusita Larraulgo udala interesatuta dagoela Ogasun eta Finantza departamentua eta Gipuzkoako lurralde historikoko udalen artean, informazioa elkar trukatzeko esparru hitzarmenera atxikitzeko.

Gaia azterturik, udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Ogasun eta Finantza Departamentua eta Gipuzkoako Lurralde historikoko udalen artean (Larraulgo udala), informazioa elkar trukatzeko esparru hitzarmenera atxikitzeko onespena ematea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BIGARRENA: Larraulgo Alkate-Lehendakaria, Maite Arana Perez andrea ahalmenu, erabaki hau aurrera eramateko beharrezkoak diren dokumentuak sinatzeko.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuari ematea.

HAMABOSTGARREN PUNTUA

BIZIKLETA ELEKTRIKOAK EROSI EDO ELEKTRIFIKATZEKO KIT-ak EROSTEKO DIRU-LAGUNTZA ESKAEREN ONESPENA

Ikusita, 2022ko azaroaren 24ean egindako udalbatzan, Larraulen erroldatuta dauden pertsona fisikoei bizikleta elektrikoak eta hiri bizikletak elektrifikatzeko kit-ak erosteko diru-laguntzen oinarriak eta deialdia onestu zela.

Ikusita, diru-laguntza eskaerak egiteko epea 2023ko otsailak 28an bukatu zela.

Ikusita, aipaturiko epean diru-laguntza eskaera bakarra egon dela. Diru-laguntza eskaera aztertutik, eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu duela ziurtatzen da.

Gaia aztertutik, udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: X.M.P. jaunak eginiko bizikleta elektrikoak erosi edo elektrifikatzeko kit-ak erosteko diru-laguntza eskaera onestea.

BIGARRENA: X.M.P. jaunari 250,00 eurotako diru-laguntza ematea eta bere ordainketa burutu dadin agintzea.


HIRUGARRENA: 250,00 eurotako gastua onestea.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri X.M.P. jaunari ematea.

HAMASEIGARREN PUNTUA

AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI 2023 KO 1. ETA 2. HIRUHILABETEKO EKARPENAK BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik 2023ko otsailaren 20an Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko idatzia, non 2023 ekitaldiko 1. eta 2. hiru hilabeteetan sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko Larraulgo Udalak burutu beharreko



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ekarpena 15.000,00 eurokoa dela adierazten den. Ekarpena, ondoren zehazten den moduan banatzen da:

- Gizarte zerbitzuak: 12.500,00 euro
- Kultura: 2.500,00 euro

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela 2023 urteko udal aurrekontuetako 421.230.00.01 eta 421.330.00.01 partidetan.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 15.000,00 eurotako ekarpena burutzea 2023 ekitaldiko 1. eta 2. hiru hilabeteetan sortu daitezkeen gastuei aurre egiteko. 2023 urteko udal aurrekontuetako 421.230.00.01 eta 421.330.00.01 partiden kargura. Kontzeptu hauetan banatuta:

- Gizarte zerbitzuak: 12.500,00 euro
- Kultura: 2.500,00 euro

BIGARRENA.- 15.000,00 eurotako gastua onartzea.

HAMAZAZPIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

Ez dira aurkezten.

HAMAHIRUGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZOAK**

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, arratsaldeko 14:00 orduak direnean Alkate andreak bilera amaitutzat ematen du, nik, behin-behineko Idazkaria naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.